



Esp. zk. SUBV_CON_COMPET/2026/17

DEIALDIA, IRABAZI-ASMORIK GABEKO ENTITATEEI DIRULAGUNTZAK

NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEAN EMATEKOA, 2026. URTEAN HAUR ETA GAZTEEI

ZUZENDUTAKO URTEKO PROIEKTUAK EGIN DITZATEN

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honetako B) apartatuan zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hasiera batez hartutako erabakiaren bidez onartu baitzuen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. **Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri.** ([2006ko 21. NAOn, otsailaren 17koan, argitaratua](#)).

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA
2. Organo emailea:	Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako eta Kultur Aniztasuneko zinegotzi ordezkaria
3. Alor kudeatzailea:	Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako eta Kultur Aniztasuneko Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Dirulaguntza kudeatzen duen Alorreko idazkari teknikoa.

B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea:

Deialdi honen xedea da Iruñeko irabazi-asmorik gabeko entitateak diruz laguntzea 2026. urtean zehar haur eta gazteendako (0-30 urte) jardueren urteko proiektuak egin ditzaten, parte-hartzaileen bizi-baldintzak eta -kalitatea hobetzeko xedez, Iruñeko udalerrian. Hurrei, nerabeei eta 18 urtetik beherako gazteei bideratutako proiektuek haurtzaroaren eta nerabezaroaren eskubideen berariazko ikuspegia jaso beharko dute.

Diruz lagunduko diren proiektuek hartzaileen parte-hartze aktiboa sustatu behar dute beren bizitzako alor guztietan, haien ingurune hurbiletik eta komunitatetik hasita, ezagutza, harremana eta bizikidetzak bultzatzen duten aisialdiko eta denbora libreko jardueren bidez; jardura horiek haur, nerabe eta gazteen inplikazio aktiboa sustatuko dute haien diseinuan eta antolaketan, haien adinari eta heldutasunari egokitutako mekanismoak bermatuz, parte-hartze erreala, informatua eta ez-sinbolikoa sustatzeko, eta adierazpen-jarrerak eta -gaitasunak, sormena, autonomia, gizarte-konpromisoa eta elkartasuna garatzea ahalbidetuko dute.

Diruz lagundutako proiektuak haur eta nerabeen interes gorenaren printzipioarekin bat egin beharko dira, eta bermatu beharko da horien eskubideak sustatu eta babestuko direla, Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko maiatzaren 11ko 12/2022 Foru Legearekin bat.

2. Deialdiaren helburua:

Iruñeko haur eta gazteen parte-hartzea aktibatzea kultur, aisia eta denbora libreko guneetan, haien



gaitasunen garapena bultzatuz hiriko bizitza sozial eta kulturean pertsona aktibo izateko; arreta berezia jarri behar da zaurgarritasun egoeran edo bazterketa-arriskuan dauden haur, nerabe eta gazteen inklusioan, eta genero-berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatu behar dira.

Deialdi honen ondorioetarako, haur eta gaztetzat joko dira 0 eta 30 urte bitarteko herritarrak.

3. Ekintza, proiektu, jokamolde eta jarduera diruz lagungarriak egiteko baldintzak, betekizunak eta epeak:

Entitate eskatzaile bakoitzak dirulaguntza eskatu eta jasotzen ahalko du urteko proiektu bakar bat egiteko.

Proiektuak Iruñeko 0 eta 30 urte bitarteko haur eta gazteei zuzendu behar dira, eta dagokien adin-tarterako egokiak izan.

Proiektuak Iruñeko udal-mugartean gauzatuko dira, nahiz eta hirian egiten ez diren jarduerak ere sartzen ahalko diren, betiere parte hartzen dutenengan esperientzia positiboak sortzen badituzte eta zentzua badute aurkeztutako proiektuaren testuinguru orokorrean.

Entitate eskatzaileek bermatu beharko dute jarduerak ingurune seguru eta babestuetan egingen direla, inolako indarkeriarik gabe, eta, betiere, haurren eta nerabeen tratu ona, duintasuna, intimitatea eta irudiaren babesa bermatuko dela. Era berean, metodologia egokitzen dela eta, haurren eta nerabeen eskubideak babesteko berariazko neurriak hartzen direla bermatu beharko dute.

Bide publikoan egin eta Udalaren baimena behar duten jarduera, proiektu eta jarduketa ororendako ezinbesteko betekizuna izanen da indarreko araudian ezarritako ingurumen- eta gizarte-jasangarritasuneko neurriak betetzea.

Zehazki, Ekitaldi Publikoei eta Jasangarritasunari buruzko apirilaren 17ko 36/2024 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat etorri beharko dute, baita 'Ekitaldi jasangarrietarako gida: Iruña, etorkizun arduratsu eta kontziente baterantz' gidako jarraibideak bete ere.

Proiektuak helburu hauetako edozeinen inguruan zedarrituko dira:

- Hausnarketa eta sentsibilizazio-jarrerak sortzen dituzten jarduerak sustatzea hainbat balio kontuan hartuta, hala nola elkartasuna, adiskidetasuna, konpromisoa eta antzekoak.
- Balioak sustatzea, hala nola genero-berdintasuna, gizarte-lankidetzak, errespetua, elkartasuna, elkarbizitza, gizatasun kritikoa eta kulturartekotasuna.
- Hartzaileen parte-hartzea sustatzea, hiriko kultur, aisialdi eta denbora libreko guneetan.
- Garapen komunitarioa eta beste kolektibo, entitate eta programa batzuekin sarean lan egitea sustatzea, auzoetako kaleetan elkarrekin egiteko jardueren bidez.
- Metodologia parte-hartzaileetan oinarritutako jarduera irekiak sustatzea, hartzaileen adinaren eta heldutasunaren arabera parte-hartze erreala, informatua eta egokitua bermatzeko jardueren diseinuan, garapenean eta ebaluazioan, bere ingurunean eta komunitatean prebentziorako eta sustapenerako baliabideak finkatzeko xedez.
- Aisialdiko eta jolaserako jarduera alternatiboak sustatzea.
- Elkartegintza eta boluntariora sustatzea, dinamizatzeko eta gizartean parte hartzeko baliabide gisa.
- Haurrek eta gazteek bizi-ohitura osasungarriak eskuratu ditzaten erraztea.
- Desgaitasuna edo zailtasun bereziak dituztenen gizarteratzea ahalbidetuko duten jarduerak sustatzea.
- 2030 Agendako Garapen Jasangarriko Helburuak lor daitezen sustatzea, bereziki 3., 4., 5., 10., 11. eta 16. helburuak.

Deialdi honetatik at geldituko dira, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 5. artikuluko baldintzak



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

betetzen ez dituzten proiektuez gain, honako jarduera hauek dituztenak:

- Entitateko bazkideek soilik parte hartzen ahalko duten jarduerak eta entitate horretako kide ez direnei sartu edo parte-hartzeko debekua ezartzen dietenak.
- Jardueren edukia eskusiboki bada kirol-jarduera arautuaren eta lehiaketa-jardueraren eremua, hezkuntza-eremu formala edo aitortutako titulazio bat lortzeko aukera ematen duena, edo osasun-arloa.
- Sakramenturen bat hartzera bideratutako izaera erlijiosoko zeremonia eta saioak dituztenak.
- Jai izaerako jarduerak, hala nola urtebetetzeak, ezkondu aurreko agurrak, bazkariak eta afariak, kabalkadak, inauteriak eta antzekoak dituztenak.
- Izaera sexista dutenak edo sexu, sexu-orientazio, arraza, erlijio, ideologia edo egoera sozioekonomikoagatik baztertzailerak direnak.
- Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko maiatzaren 11ko 12/2022 Foru Legean haur eta nerabeei aitortzen zaizkien eskubideak urratzea dakarten jarduerak.

Proiektuak egiteko epea: 2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdiaren guztizko zenbatekoa, gehienez, kreditu erabilgarrien barruan: 165.000 €

Horietatik 75.000 euro 90/33702/482090 partidari dagozkio, eta 90.000 euro, 80/33701/482090 partidari.

Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 80/33701/482090 90/33702/482090

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Urteko proiektu bakoitzari ematen ahalko zaion gehieneko zenbatekoa ezin izanen da entitateak aurkeztutako eta onartutako aurrekontu osoaren % 90 baino gehiago izan, ezta 10.000 € baino gehiagokoa ere.

Entitate bakoitzari eman beharreko dirulaguntza eskaera bakoitzak erdietsi duen puntuazioaren eta banakako gehieneko zenbatekoaren arabera izanen da, bai eta deialdian erabilgarri dauden funtsen arabera ere.

Zenbatekoa zehazteko ehuneko-tarteak ezarriko dira, eta puntuaziorik handiena duen proiektuak lortuko du dirulaguntzaren gehieneko ehunekoa, eta, horrela, hurrenez hurren, gehieneko puntuazioarekiko proportzioan.

4. Hainbanatzeko aukera:

☒ BAI ☐ EZ

Baiezkoa bada, nola hainbanatu: Entitate eskatzaileendako kalkulaturako dirulaguntzek guztira deialdi honetako C.1 apartatuan gehienez ezarritako zenbatekoa gainditzeko badute, azkenean emanen diren zenbatekoak proportzionalki murriztuko dira, lortutako puntuazioa kontutan hartuta.

5. Urte anitzeko deialdia: ☐ BAI ☒ EZ

Urte anitzeko deialdia izanez gero, urte anitzeko gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

6. Urtekoak:

Urteko arrunta: 165.000 € 2. urtekoa () € 4. urtekoa () €



1. urtekoa ()

€

3. urtekoa ()

€

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETEKIZUNAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko betekizunak:

Dirulaguntza ematea zertan oinarritzen den eta egoera horretan dauden pertsonak edo entitateak izan daitezke onuradun, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta apartatu honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: ☒ BAI ☐ EZ

1. Irabazi-asmorik gabeko entitatea izatea.
2. Legearekin bat eraturik egon eta dagokien erregistroan izena emanda izatea, eskabidea aurkezteko mugaegunean.
3. Elkartearen egoitza soziala eta fiskala Iruñean edukitzea.
4. Halako egitura edukitzea ezen nahikoa izanen baita hala aurkeztutako proiektua gauzatzeko nola entitatearen helburu eta xedeak betetzen direla bermatzeko.
5. Nahitaez izatea erantzukizun zibileko aseguru, eta, proiektuak halakorik eskatzen badu, baita parte-hartzaile guztiendako istripu-aseguru ere.
6. Egunean izatea Gizarte Segurantzari eta zergei dagozkien betebeharrak.
7. Egunean izatea Iruñeko Udalaren aurrekontuen kargura emandako aurreko dirulaguntza-deialdietan ezarritako betebeharrak.
8. Sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituak edo gizakien salerosketakoak egin ez izana, adingabeekin ohiko kontaktua izatea dakarten jarduerak egiteko, Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak jasotzen duen bezala.

Aipatutako betekizun guztiak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira, eta mantendu proiektuak irauten duen epean.

Dirulaguntzaren izaera berezia dela medio, pertsona edo entitate onuradunak salbuetsita daude Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzetik:

☐ BAI ☒ EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) apartatuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, dirulaguntzaren eskabidearekin batera.



E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 11. artikuluan eta apartatu honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

☒ BAI ☐ EZ

- Behar diren agiri guztiak egin eta entregatzea eskaera aurkeztean zein dirulaguntza justifikatzeko epean.
- Aurkeztutako eta onartutako proiektuaren aurrekontuaren % 100 justifikatzea, edozein dela ere emandako dirulaguntzaren zenbatekoa.
- Gordetzea jasotako funtsak zertan erabili diren egiaztatzen duten agiriak –agiri elektronikoak barne–, egiaztapen- eta kontrol-jarduketan xede izaten ahal diren neurrian.
- Emandako dirulaguntza zein xedetarako jaso eta horien gastuak estaltzeko baino ez erabiltzea.
- Dirulaguntzaren xede den helburua betetzea eta proiektua gauzatzea.
- Kontabilitate-liburuak eta gainerako agiriak edukitzea, behar bezala beterik eta eguneraturik entitate onuradunari kasuan-kasuan aplikatzen ahal zaizkion Elkarleen Legeak, merkataritzako legeak nahiz lege sektorialeak ezarritakoarekin bat.
- Jakinaraztea proiektua garatzen den bitartean entitate eskatzailearen edo eskatzaileen nortasun juridikoan izandako aldaketak: estatutuak, entitatearen legezko ordezkaria, etab.
- Jakinaraztea dirulaguntza emateko kontuan hartu diren jarduera eta baldintzetan gertatutako edozein aldaketa.
- Udal-langileekin harremanetan egotea garatutako proiektuei buruzko jarraipenak, egiaztapenak edo informazio-eskaerak egiteko.
- Betetzea Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta pertsona fisikoak datu pertsonalen tratamenduaren arloan babesteari eta datu horien zirkulazio libreari buruz Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2016ko apirilaren 27ko (EB) 216/679 Erregelamenduan ezarritako lege-ohartarazpenak.
- Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 57. artikuluan ezarritako baldintza betetzeko betebeharra.
- Unean-unean indarrean dagoen osasun-araudia betetzea.
- Ekitaldia hedatzean jasangarritasun arloan hartutako neurriak jakinaraztea (hala nola *Plastikorik gabeko ekitaldia, Garraio publikoan etortzea gomendatzen da*).
- Bide publikoan musika edo megafonia barne hartzen duten ekitaldietan, zorrotz betetzea okupazio-baimenean ezarritako emisio akustikoko mugak eta ordutegiak, eta soinu-inpaktua minimizatzea auzoan.
- Jasotako zenbatekoak itzultzea, hala deialdi honen Q) apartatuan nola Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean adierazitako gainerako kasuetan.

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezalako publizitatea egin beharko dute dirulaguntzaren xede diren jarduerak edo proiektuak Udalak emandako finantzaketa publikoaren bidez egin direla hedatzeko. Horretarako:

- Udalaren logotipoa txertatu beharko dute komunikazio- edo publizitate-idatzi eta -grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan), baita legenda hau ere: "Iruñeko Udalaren laguntzarekin – Con la colaboración del Ayuntamiento de Pamplona". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen tamaina berekoa izanen da, gutxienez.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

- Irratian eta beste komunikabide ez-grafikoetan egiten den komunikazio edo publizitateari dagokionez, honako lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jarduera / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da".
- Promozio- edo publizitate-oparietan eta dirulaguntzak finantzatutako beste edozein gauza edo produktutan, Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebehar hau ez bada betetzen, dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman den, horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikularekin bat: ☒ BAI ☐ EZ

Xede-epa: ezin izanen da bost urtetik beherakoa izan erregistro publiko batean inskribatu daitezkeen ondasunez bezainbatean, eta bi urtetik beherakoa gainerako ondasunei dagokienez.

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

☒ BAI ☐ EZ

Oro har, ez da aldaketarik onartuko aurkeztutako proiektuan. Dena den, hasierako proposamena berriz egokitu behar denean jarduerak zein errealitatetan garatu behar diren eta horretara, aldaketak egiten ahalko dira proiektua gauzatzean, hasierako aurreikuspenei dagokienez, ustekabeko inguruabarrak direla medio, inguruabar horiek kontuan hartzekoak badira jarduera zuzen betetzeko, betiere aldaketa horiek ez badute eragiten funtsezko aldaketarik proiektuan diruz lagundutako jardueraren izaera zein helburuak aldatuta, eta ez badituzte dirulaguntza emateko balorazioan aintzat hartu diren inguruabarrak aldatzen. Aldaketa horiek egiteko, beharrezkoa izanen da udal-teknikariei aldaketa horien berri ematea, aldaketak justifikatzen dituzten inguruabarrak agertu eta berehala eta, betiere, aldaketak egin baino lehen.

Funtsezko aldaketatzat hartuko dira proiektuaren helburuei, jarduerai eta proiektuaren hartzaille diren taldeei eragiten dietenak edo aurrekontuan sartutako kontzeptuak aldatzea dakartenak, baldin eta horien batura, guztira, emandako dirulaguntzaren % 20 baino gehiago bada.

G. ESKABIDEAK AURKEZTEA:

1. Eskabideak aurkezteko tokia:

Eskabideak telematikoki aurkeztu beharko dira, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan (www.pamplona.es/eu) argitara emandako *Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoendako* delako izapidearen bidez.

Deialdi honetan ez dira onartuko telematikoki aurkezten ez diren eskabideak, izan ere, eskatzaile guztiak Administrazio Publikoekiko harremanak elektronikoki edukitzera beharturik daude, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak jasotzen duen bezala.

2. Eskabideak aurkezteko epea:

Eskabideak aurkezteko epea deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da, eta HILABETE BAT iraunen du.



Aipatutako epetik at aurkeztutako eskabideak ez dira onartuko.

3. Eskabideak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskaerak eskabidearen bidez egin beharko dira, ala PDF formatuko (aurkezpen telematikorako) eskabidez, interesdunak edo dirulaguntza eskatzeko ordezkapen nahikoa edukita ordezkapen horren gaineko erantzukizunpeko adierazpena egin duen pertsonak sinaturik, betiere "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoendako" izapiderako aurreikusitako jarraibideekin bat. Eskabidearekin batera, deialdi honen G.4) apartatuak aipatzen dituen agiriak aurkeztuko beharko dira.

Ez da beharrezkoa izanzen G.4) apartatuan aipatutako agiriak aurkeztea, baldin eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikularekin bat, jarduten duen Administrazioak jada bere eskuetan baditu edo beste edozein Administrazioak egin baditu, salbu eta eskatzaileak edo kasuan kasuko ordezkariak ez badio Iruñeko Udalari baimenik ematen informazioa dagokion administrazio publikotik eskuratzeko.

Eskaera batek ez baditu betekizunak betetzen, ez badira deialdi honetan ezarritako agiriak aurkezten, edo bestela, ez bazaio Iruñeko Udalari baimenik eman agiriok egin dituen administrazioaren bidez eskuratzeko, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean akatsa zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio hala egin ezean ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere aldeztu aurretik ebazpena emanen delarik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua ezarritakoarekin bat.

Dirulaguntza jasotzeko eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onestea.

.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak. Honako hauek frogatzen dituzten egiaztagiria: entitatea legeekin bat eraturik dagoela, entitatearen egoitza eta zergetarako helbidea egiaztatzen dutenak, eta eskabidea aurkezten den datan entitatea legeekin bat eraturik dagoela.

Ez da beharrezkoa izanzen hemen zehaztutako agiriak aurkeztea baldin eta Iruñeko Udalaren edo beste administrazio publiko baten eskuetan badaude, betiere eskatzailea ez bada Iruñeko Udalak agiriak ofizioz eskatzearen aurka agertu.

- Entitatearen estatutuak.
- Identifikazio Fiskaleko Txartela.
- Legezko ordezkariaren duenaren egiaztagiria eta haren NANA.
- Egiaztagiria, eskabidea aurkezteko unean zeini bere izaera juridikoa dela-eta dagokion Erregistroan izena emana duela ziurtatzeko, betiere hori eska badaiteke indarra duten arauarekin bat.

Entitateek LEHENBIZIKO ALDIZ eskatzen badiote dirulaguntza Iruñeko Udalari, honako agiri hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

- Transferentzia bidez ordaintzeko eskabidea (V. Eranskina)

.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, izapide telematikoan emandako jarraibideekin bat, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrek eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.



c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari dagozkien betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko agiriak.

Udalak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikularekin bat, ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio eskudunarekiko betebeharrak horiek, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du, betiere dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin baino lehen. Salbuespenez, eta Iruñeko Udalak ezin baditu agiriok eskuratu, interesdunari eskatzen ahalko zaio aurkez ditzala.

Interesduna Udalak egiaztapen horiek ofizioz egitearen aurka agertuz gero, administrazio eskudunek emandako egiaztapenak aurkeztu beharko ditu, dirulaguntza eskatzean egindako adierazpen horretan jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzeko.

d) Deialdiak ezartzen badu eskatzailea pertsona-talde bat izaten ahal dela, izan pertsona fisikoak, izan juridikoak (publikoak ala nortasun juridikorik gabeko pribatuak), eskabidean berariaz adierazi beharko da taldeko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahalguztari bakar bat izendatu beharko da, eta behar beste ahalorde emanen zaizkio elkarteak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen bat, non jakitera emanen baitira xede bererako eskatu edo jaso diren beste dirulaguntza batzuk, beste administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribatu batzuei eskatutakoak edo haiengandik jasotakoak. Zehaztu beharra dago zenbat eskatu zaien, entitatearen izena eta erdietsitako kopurua. ☒ BAI ☐ EZ

f) Memoria, eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duena.

I. eranskinarekin bat aurkeztuko da, non entitatearen datu orokorrak eta proiektuaren datu orokorrak jasoko baitira, H) apartatuan jasotako balorazio-aukerak egiaztatzearen informazioaren parte batekin batera.

g) Jarduera-fitxa: eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektuan sartutako jarduera bakoitzeko fitxa bana aurkeztuko da, II. Eranskinarekin bat. Fitxa horretan agertuko da H apartatuan jasotako balorazio-aukerak egiaztatzearen behar den informazioa. Jarduera batzuek helburu berberak izanez gero, fitxa bakarrean elkartzeko aukera egon da.

h) Aurkeztutako proiektuaren aurrekontua, guztira, III. Eranskinarekin bat.

i) Erantzukizunpeko adierazpena, IV. Eranskinarekin bat, adierazteko entitateak betetzen dituela datuen babesari buruz eskatzen ahal diren segurtasun-neurriak.

j) Erantzukizunpeko adierazpen bat, zeinean jasota geratuko baita entitate eskatzaileak konpromisoa hartzen duela bide publikoan egindako ekitaldi edo ekintzen inguruko jasangarritasun-planak egiteko eta aurkezteko, beharrezkoa balitz, VI. eranskinarekin bat.

k) Erantzukizunpeko adierazpena, adierazteko entitateak betetzen dituela haurrak eta nerabeak babesteko indarreko legeek ezarritako neurriak. Adierazpena izapide telematikoa emandako jarraibideekin bat egiten da.

HURRENGO PARAGRAFOA EZ ZAIO APLIKATUKO DEIALDI HONI

.



Modu telematikoan egiten ez diren izapideetarako, agiriei jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuak, edo bestela, indarreko legeekin bat benetakoak diren kopiak.

Telematikoki egiten diren izapideetarako, deialdian parte hartzen duen entitateak aitortu beharko du emandako informazio guztia egiazkoa dela, badituela informazio hori egiaztatzeko agiriak, jatorrizkoak edo kautotuak (besteak beste, tituluak, ziurtagiriak eta bestelako agiri ofizialak), eta horien kopiak aurkezten dituela. Halaber, bere gain hartuko du informazio horren egiazkotasunaren erantzukizuna, bai eta hura faltsua izatera, horrek ekartzen ahal dituen kalte-galerena ere.

H. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:

Eskaerak baloratzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

ENTITATE ESKATZAILEAREN BALORAZIOA (15 puntu, gehienez)

1. Entitatearen antzinatasuna (elkartea noiz erregistratu zen aintzat hartuko da): 4 puntu, gehienez.
 - o 1 urte baino gutxiago: 0 puntu.
 - o Urte bat eta hiru urte bitarte: puntu bat urte bakoitzeko; 3 puntu, gehienez.
 - o 3 urte baino gehiago: 4 puntu.
2. Entitateak dituen baliabideak: materialak, giza baliabideak eta ekonomikoak: 5 puntu, gehienez.
 - o Ez badira entitatearen bitarteko materialak, ekonomikoak eta giza-baliabideak aipatzen edo azaltzen: 0 puntu.
 - o Nahikotasunez aipatu eta azaltzen baditu aurreko puntuan aipatutako bi aldagai gutxienez: 2 puntu bitarte.
 - o Nahikotasunez aipatu eta azaltzen baditu aipatutako hiru aldagai gutxienez, nahiz eta denek proiektuaren beharrei erantzun ez: 3 puntu bitarte.
 - o Hiru aldagaiak argi eta garbi aipatu eta azaltzen baditu, eta proiektuaren beharren arabera badira: 5 puntu bitarte.
3. Lantaldearen osaera: 6 puntu, gehienez.
 - o Hau egiaztatzen duten entitateak: gutxienez taldearen % 50ak prestakuntza eta trebakuntza izatea bai haur eta nerabeen arloan esku hartzean, bai eskubideen ikuspegiari, bai ingurune seguruen sorreran (Denbora libreko monitore, denbora libreko zuzendari, Komunitatearen Osasunerako Ituna (ASC) erakundearen eta Gizarteratzeko teknikariaren tituluak, eta gizarte-, hezkuntza- edo giza zientzietako unibertsitate-graduak titulazioa edo baliokidea): 2 puntu.
 - o Talde horren % 60 baino gehiago gazteak direla egiaztatzen duten entitateak: 2 puntu.
 - o Talde horren % 50 edo gehiago emakumeak direla egiaztatzen duten entitateak: 1 puntu.
 - o Talde horren gutxienez % 25ak euskarako gaitasun egiaztatua dutela egiaztatzen duten entitateak (B2 maila edo goragokoa): 1 puntu.

PROIEKTUAREN KALITATE TEKNIKOA (85 puntu, gehienez).

1. Oinarriak: 5 puntu, gehienez.
 - o Oinarriak egon ezean, edo orokorra eta ez espezifikoak bada: 0 puntu.
 - o Deskribapena orokorra bada eta arazoak, ikuspuntua eta esku-hartzearen gunea nahikoa zehazten badira: 3 puntu bitarte.
 - o Proiektuaren oinarri osoak eta berariazkoak badaude, bertan adierazita aurrekariak, arazoen testuingurua, ikuspuntua, jarduketaren lehenespena eta esku-hartzearen gunea: 4 puntu bitarte.
 - o Haurren eta nerabeen eskubideen aldeko ikuspegia txertatzen bada, betiere maiatzaren 11ko 12/2022 Foru Legearekin bat (Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko): 1 puntu.
2. Helburuak: 5 puntu, gehienez.



- o Helburu argirik egon ezean: 0 puntu.
 - o Helburu orokorrak egon eta koherenteak badira proiektuan planteatzen den beharrarekin: 3 puntu bitarte.
 - o Helburu orokorrak eta espezifikoak egon eta koherenteak badira proiektuan planteatzen den beharrarekin: 5 puntu bitarte.
3. Hizkuntza eta irudi inklusibo, ez-sexista eta ez-baztertzalea erabiltzea proiektua idaztean eta jarduerak diseinatzean: 4 puntu, gehienez.
- o Halako aipamenik ez badago: 0 puntu.
 - o -Genero-ikuspegia aintzat hartuta hizkuntza inklusiboa txertatzen badu programaren idaztean edo jarduerak diseinatzean % 50 arte: 2 puntu bitarte.
 - o Proiektuaren eta jardueren diseinuaren ia idazketa guztian erabiltzen bada: 4 puntu bitarte.
4. Zaurgarritasun egoera larrian dauden haur edo gazteak barne hartzea: 10 puntu, gehienez.
- o Ez bada aurreikusten haur edo gazte zaurgarrienak barne hartzeko neurri eta metodologia zehatzak sartzea: 0 puntu.
 - o Haur edo gazte zaurgarrienak barne hartzeko neurri eta metodologia zehatzak sartzen badira jardueren % 50 arte. 6 puntu bitarte
 - Haur edo gazte zaurgarrienak barne hartzeko neurri eta metodologia zehatzak sartzen badira ia proiektu osoan: 8 puntu arte.
 - o Haur edo gazte zaurgarrienei berariaz zuzendutako jarduerak egiten badira: 2 puntu.
5. Jarduerak irekiak badira eta horiek egiten diren komunitatea ezagutzera ematen badute (elkarlana eremuko elkarte-ehunarekin eta auzokideekin, eta topaguneak sortzea): 10 puntu, gehienez.
- o Proposatutako jarduerak non egin eta bertako komunitatea ez badute ezagutzera ematen: 0 puntu.
 - Iruñeko auzoetan berariazko jarduerak egiten badira eta, komunitatea ezagutzea eta lurraldearekiko lotura sortzen badituzte: 3 puntu.
 - o Programatutako jardueren % 50 arte irekiak badira eta horiek egiten diren komunitatea ezagutzera ematen badute: elkarlana elkarte-ehunarekin eta auzokideekin, eta topaguneak sortzea: 6 puntu, gehienez.
 - o Programatutako ia jarduera guztiak irekiak badira eta horiek egiten diren komunitatea ezagutzera ematen badute (elkarlana elkarte-ehunarekin eta auzokideekin, eta topaguneak sortzea): 10 puntu, gehienez.
6. Hausnarketa eta sentsibilizazio-jarrerak sortzen dituzten jarduerak, hainbat balio kontuan hartuta, hala nola genero-berdintasuna, dibertsitateari errespetua, elkartasuna, adiskidetasuna, konpromisoa, kulturartekotasuna, lankidetzeta eta antzekoak: 15 puntu, gehienez.
- o Balio horietako baten inguruko jarduerarik ez bada egiten, edo modu ez-espezifikoan aipatzen badira: 0 puntu.
 - o Jardueren % 50 arte balio horietakoren baten inguruan egitea aurreikusten bada, baina zehaztu gabe nola landuko den: 3 puntu bitarte.
 - Jardueren % 50 arte balio horietako hiruren inguruan egitea aurreikusten bada, nola landuko diren zehaztuta: 5 puntu bitarte.
 - o Jardueren % 50 baino gehiago edo guztiak hiru balio baino gehiagoren inguruan egiten badira eta/edo proiektuan zeharka txertatzen badira, nola landuko diren zehaztuta: 10 puntu bitarte.
 - o Genero-berdintasuna zeharka lantzea aurreikusten bada: 4 puntu gehiago, gehienez.
 - o Balioen inguruko lan hori txertatzen bada haurren eta nerabeen eskubideen ikuspegia aintzat hartuta, 12/2022 Foru Legearekin bat, adingabeen interes gorena barne hartuta. 1 puntu.
7. Haurren eta nerabeen eskubideen ikuspegia sartu bada proiektuan: 5 puntu, gehienez.
- o Aipatzen bada badirela eta ezartzen direla bai tratu onerako neurriak, protokoloak edo jardunbideak, bai haurren aurkako indarkeria egoerak prebenitzekoak, atzematekoak eta horien aurrean jardutekoak: 2



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

puntu.

o Zehazten bada badirela eta ezartzen direla bai tratu onerako neurriak, protokoloak edo jardunbideak, bai haurren aurkako indarkeria egoerak prebenitzekoak, atzematekoak eta horien aurrean jardutekoak: 3 puntu.

o Aurkezten badira bai tratu onerako neurriak, protokoloak edo jardunbideak, bai haurren aurkako indarkeria egoerak prebenitzekoak, atzematekoak eta horien aurrean jardutekoak: 4 puntu.

o Proiektua diseinatu eta gauzatzean haurren eta nerabeen interes gorenak kontuan hartzen bada: 1 puntu.

8. Haurren, nerabeen edo gazteen adinari egokitutako benetako parte-hartze informatua proiektuaren bizi-ziklo osoan (diseinua, abiatzea, ebaluatzea, etab.), haien adinari eta heldutasunari egokitu: 10 puntu, gehienez.

o Ez bada haur, nerabe edo gazteek bideratutako jarduerarik egiten, edo diseinuan duten parte-hartzea modu espezifikoan aipatzen ez bada: 0 puntu.

o Adingabeek, nerabeek edo gazteek jardueren % 25-50 artean zuzentzea aurreikusten bada, baina ez bada behar bezala azaltzen nola parte hartuko duten: 2 puntu bitarte.

o Adingabeek, nerabeek edo gazteek jardueren % 25-50 artean zuzentzea aurreikusten bada eta behar bezala azaltzen bada nola parte hartuko duten: 5 puntu bitarte.

o Haurrek eta nerabeek jardueren erdiak baino gehiago edo guztiak bideratzen badituzte, nola parte hartuko duten zehaztuta: 8 puntu bitarte.

o Jarduera guztietan haur eta gazteen parte-hartzea zeharka txertatzen bada eta nola parte hartzen duten azaltzen bada: 10 puntu.

9. Giza baliabideak eta baliabide materialak: 3 puntu, gehienez.

o Proiektua garatzeko erabiliko diren baliabide eta bitarteko teknikoak azaldu ezean: 0 puntu.

o Giza baliabideak eta baliabide materialak behar bezala azalduta badaude, nahiz eta, kasuren batean, planteatutako proiektuarekiko guztiz egokiak izan ez, hala urriegiak nola gehiegizkoak izateagatik: 2 puntu bitarte.

o Giza baliabideak –kopuru eta profilaz bezainbatean– proiektuari egokitzen bazaizkio, eta aurreikusten bada proiektua gauzatzean eraginkortasun handiagoa bermatzen duten bitartekoak erabiltzea: 3 puntu bitarte.

10. Proiektuaren plangintza eta ebaluazio-adierazleak: 5 puntu, gehienez.

o Ez badago jardueren plangintza koherenterik eta proiektuaren ebaluazioa ez bada kontuan hartzen: 0 puntu.

o Jardueren programazioa planteatutako helburuekiko koherentea bada eta ebaluazioa behar bezain zehatza bada, nahiz eta ebaluazio-adierazlerik edo -parametrorik egon ez: 2 puntu bitarte.

o Aurrekoaz gain, jardueretan erabiliko diren metodologia eta teknikak, behar diren baliabideak, egutegia eta abar zehazten badira, eta proiektua ebaluatzeko metodoa zehatz-mehatz azaltzen bada, adierazle edo parametro espezifikoak eta espero diren emaitzak barne: 2 puntu.

o Aurrekoaz gain, haurren eta nerabeen eskubideak sustatzearekin eta bermatzearekin lotutako adierazleak aipatzen badira: 1 puntu.

11. Proiektuaren garapenak barne hartzen du beste entitate eta gizarte-baliabide batzuekin koordinazioan eta sarean lan egiteko guneetan parte hartzea: 5 puntu, gehienez.

o Ez bazaie aipamenik egiten beste entitate batzuei eta independentea bada: 0 puntu.

o Jarduketa-xede bera duten beste entitate batzuekin koordinazioa egonez gero: 2 puntu bitarte.

o Proiektua osagarria bada eta Auzo-unitateetako Haur eta Familiendako lantaldeekin edo Haur, Nerabe eta Familiendako programa komunitarioarekin koordinatzen bada: 2 puntu.

o Proiektua osagarria bada eta jarduketa-xede bera duten entitate eta gizarte-baliabide publikoekin koordinatzeko jarduketak aurreikusten badira, haurren eta nerabeen eskubideen babes, prebentzio eta bermean laguntzeko: 5 puntu bitarte.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

12. Deskribatzea 2030erako Garapen Jasangarrirako Helburuek betetzen duten lan koherentea eta zeharkakoa (batez ere 3., 4., 5., 10., 11. eta 16. helburuak): 5 puntu, gehienez.

o Proposatutako proiektuak ez badu GJHrik lantzen: 0 puntu.

o Proposatutako proiektuak 1 GJH badu ardatz: 1 puntu.

o 5 GJHra bitarte lantzen badira: 2 puntu.

o 5 GJH baino gehiago lantzen badira: 5 puntu.

13. Proiektuan jasotako jarduerak egitean jasangarritasun arloko neurriak sartzea (adibidez: sukaldeko tresneria eta baxera berrerabilgarriak eta konpostagarriak erabiltzea, birziklapena kudeatzea, inprimatutako materialen kopurua gutxitzea, etab.): 3 puntu, gehienez.

o Ez bada jasangarritasun arloko neurriak aurkezten: 0 puntu.

o 1 edo 2 neurri aurkezten eta azaltzen badira: 2 puntu.

o Hiru neurri baino gehiago aurkezten eta azaltzen badira 3 puntu.

GUTXIENEZ 45 PUNTU ERDIETSI BEHARKO DIRA *PROIEKTUAREN KALITATE TEKNIKO*A IRIZPIDEAN.

I. ESKAERAK EBALUATZEKO BALORAZIO-BATZORDEA:

Eskaerak ebaluatzeke, balorazio-batzorde bat eratuko da, kide hauek osatua:

Batzordeburua:	Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako eta Kultur Aniztasuneko Alorreko zinegotzi ordezkaria Ordezkoa: Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako zinegotzi ordezkaria.
Batzordekideak:	
1.	Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako eta Kultur Aniztasuneko Alorreko zuzendaria. Ordezkoa: Iruñeko Udaleko Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Alorreko zuzendaria / Ordezkoa:
2.	Komunitate Ekintzako teknikari bat. Ordezkoa: Alor bereko beste teknikari bat.
3.	Gazteriako teknikari bat. Ordezkoa: Alor bereko beste teknikari bat.
Idazkaria:	Zuzenbidean lizentziaduna, Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako eta Kultur Aniztasuneko Alorrari atxikia. Ordezkoa: Ordezkoa: Udalaren Aholkularitza Juridikoko beste zuzenbide-lizentziadun bat.

J. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA. EBAZPENAREN JAKINARAZPENA:

1. Prozeduraren instrukzioa:

Instrukzio-organoak eskaeren aurre-ebaluazio bat eginen du, eta, hori abiapuntu hartuta, txosten bat, non egiaztatuko baita eskura daukan informazioaren arabera ondorioztatzen dela ezen pertsona zein entitate onuradunek halakoak izateko bete behar diren baldintza guztiak betetzen dituztela. Espedientea balorazio-batzordeari helaraziko dio, eskaerak ebalua ditzan, deialdi honen H) apartatuan aurreikusten diren balorazio-irizpide objektiboen arabera.

Balorazio-batzordeak proposamen-txosten arrazoitu bat eginen du, ebaluazioaren emaitza zehazteko. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientea eta balorazio-batzordearen txostena ikusita, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio. Balorazio-batzordeak behar diren adierazpen eta argibide guztiak eskatzen ahalko ditu nahitaezko txostena egin eta



baloratzeko.

Prozeduraren instrukzioa egiteko organo eskuduna Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako eta Kultur Aniztasuneko Alorreko Idazkaritza Teknikoa izanen da, eta ofizioz egingen ditu ebazpen-proposamena emateko behar diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatze beharrezko jotzen dituen jarduketak oro.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea: 6 HILABETE

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: dirulaguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak eta, eskaerak ezetsirik izanez gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

☒ Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta hura eskatzaileei jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

☐ Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta udal-webgunean argitaratuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluko b) letran agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: ☒ BAI ☐ EZ
- Tramitatzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskabidea sartu den eguna: ☐ BAI ☒ EZ
- ☐ Epea zenbatzeko beste sistema bat:

Prozedura ebazteko gehieneko epea amaituta berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsitatzat joko da.

K. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: ☒ BAI ☐ EZ

Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen eta Udalaren webgunean (Gardentasuna eta Open Data atalean).

Aurrekoa gorabehera, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

L. GASTU DIRUZ LAGUNGARRIAK:

1. Gastu diruz lagungarrien zehaztapena:

Gastu diruz lagungarritzat joko dira diruz lagundutako jarduerarekin ezbairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen L.2) apartatuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek diruz lagungarriak dira:

I.-AURKEZTUTAKO PROIEKTUA GAUZATZEARI LOTURIKO ZEHARKAKO GASTUAK, ADMINISTRAZIOKOAK ETA FUNTZIONAMENDUKOAK.

Entitateak eskatutako kopuruaren % 40 aintzat hartuko da gehienez ere gastu hauetan:



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

- Telefono-gastuak.
- Entitatearen webgunearekin eta hori mantentzeari loturiko gastuak.
- Entitatearen egoitzaren alokairu- eta mantentze-gastuak
- Entitateko teknikarien gastuak eta horiek kudeatzeko beharrezkoak direnak: gastu horiek entitateak kontratatutako pertsonen edo kontratazioak kudeatzeko erabiltzen diren aholkularitzetatik eratorritako gastuei dagozkie. Zehazten da langileria-gastuari dagokion dirulaguntza, gehienez ere, gizarte-laneko B mailako oinarritzko soldataren baliokidea izanen dela, Foru Komunitateko Administrazioan zerbitzuak ematen dituzten profesionalendako soldata-taulen arabera.
- Bankuen komisioak, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 29.7. artikuluan xedatutakoa izan ezik.

II. AURKEZTUTAKO PROIEKTUAREN ZUZENENKO GASTUAK.

JARDUERAK: aurkeztutako proiektuan planifikatutako jarduerak zuzen garatzeko beharrezkoak diren gastu guztiak. Gastu hauek izan daitezke garraioa, elikadura, espazioak alokatzea, sarrerak erostea edo baliabide materialak.

a) Garraioa: joan-etorrietarako garraioa erabiltzea eskatzen duten jarduerak behar bezala zehaztu eta justifikatu beharko dira eskaera egitean, aurkeztutako proiektuarekin bat etorri beharko dute, eta gainera deialdi honetan ezarritako helburuak bete beharko dituzte. Bakarrik hartuko dira aintzat programatutako jarduera egoki garatzeko ezinbestekoak diren joan-etorriak.

Banakako txarteletan emandako garraio-gastuen kasuan, inoiz ez da ordainduko ohiko tarifa merkeenerako ezarritakoa baino prezio altuagorik. Ibilgailu partikularra erabiliz gero, 0,36 euro ordainduko da kilometro bakoitzeko.

b) Elikadura: proposatutako jarduerak egin ahal izateko behar diren elikagaiak erostek eragindako gastuak hartuko dira elikadura-gastutzat.

c) Alokairuak: jarduerak gauzatzeko beharrezkoak izanik, entitatearen ohiko egoitzatik kanpo bestelako gune batzuk –aterpeak, agertokiak edo bestelakoak– alokatzeak eragindako gastuak. Ez da onartuko deialdi honen zentzuarekin bat ez datorren gasturik (hotel-gastuak, esaterako).

d) Sarrerak: programaturiko jarduerak gauzatzeko beharrezkoak diren sarrerak eta gisakoak erostek eragindako gastuak.

e) Baliabide materialak: jarduerak egiteko material suntsikorra erostek eragindako gastuak. Material inbentariagarriari dagokionez, ez dira diruz lagunduko eskatutako dirulaguntzaren % 25 baino gehiago jotzen duten gastuak.

GIZA BALIABIDEAK: jarduera bat egoki garatzeko entitateaz kanpoko berariazko langile kualifikatuak kontratatzea eskatzen duten gastuak barne hartzen dira. Gastu horrek eskatutako dirulaguntzaren % 20 joko du gehienez ere. Ez da inola ere onartuko jarduera baterako berariazko langileria gasturik, baldin eta orduko 60 euro baino gehiagoko balioa badu.

DISEINUA ETA INPRIMAKETA: egin beharreko proiektu edo jarduerak publiko egiteko eta hedatzeko erabiltzen den materiala diseinatu eta inprimatzearen ondorioz sortutako gastuak. Gastu horrek eskatutako dirulaguntzaren % 10 joko du gehienez ere.

ASEGURU PRIMAK: jarduerak zer-nolako arriskuak sortu eta horiek estaliko dituen erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatzeak eragindako gastua, eta halakorik behar balitz, parte-hartzaileendako eta boluntarioendako istripu-aseguru poliza bat kontratatzeak eragindako gastuak.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Gastu diruz lagungarrietan, kostua ezin izanen da inolaz ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat hartuko da deialdi honen P) letraren 2. zenbakian ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutako gastua:

☒ BAI ☐ EZ

Honako hauek ez dira inoiz gastu diruz lagungarritzat joko:

- Edari alkoholodunak. Ez da onartuko edari alkoholodunik jasotzen duen fakturarik: fakturaren batean sartuko balitz, bertan agertzen diren kontzeptu guztiak baztertuko dira.
- Jatetxe edo antzekoetan egindako bazkari, afari edo ospakizunen gastuak.
- Aurkeztutako proiektuko jardueretara bertaratzen diren edo horietan parte hartzen dutenendako ekarpen ekonomikoak, opariak eta diru- edo jenero-hobariak.
- IATa, ibilgailuen konponketak.
- Tokiko tributuak.
- Zehapenak.
- Berreskuratu eta konpentsatzen ahal diren fidantzak eta zeharkako zergak.
- Argi eta garbi zehazten ez diren beste gastu batzuk edo aurkeztutako proiektua garatzeko behar-beharrezkoak ez direnak.

2. Gastu diruz lagungarriak egiteko epea: *Gastu diruz lagungarriak izanen dira 2026ko urtarilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean benetan egin eta benetan ordaindutakoak.*

M. AZPIKONTRATATZEA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

☐ BAI ☒ EZ

Ehunekoa:

N. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, apartatu honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoa. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra: ☒ BAI ☐ EZ

Zenbatekoa edo ehunekoa: % 10

Ñ. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea ☒ BATERAGARRIA ☐ BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Deialditik baztertuko dira Iruñeko Udalaren beste deialdi batzuetan jarduera berberak –jarduerak eta horiei lotutako gastu guztiak barne– egiteko dirulaguntzak jasotzen dituzten proiektuak. Era berean, ez dira diruz lagungarriak izanen haien izaera edo edukia dela-eta Udalaren dirulaguntza-deialdi berariazkoagoen xede izaten ahal diren proiektuak.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egingen da, eta, betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

O. ORDAINKETA:

1. Nola ordaindu: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

- ☐ Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarduerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.
- ☒ Konturako ordainketa:
- ☐ Ordainketa zatikatua:
 - ☒ Ordainketa aurreratua: % 100
 - ☐ Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta aurreratuaren artekoa:

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

Aurrekoa gorabehera, Udalak ofizioz kitatzen ahalko ditu, aldeztu aurretik, dirulaguntzen onuradunengandik kobratzeke dituen zorrak, dirulaguntza horiek, osorik edo parte batean, zor dituzten kopuruekin konpentsatuta.

2. Bermeen eraketa:

- ☐ BAI ☒ EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:

P. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Modalitate hau erabiliko da ezarritako baldintzak eta dirulaguntzaren helburuak bete direla justifikatzeko:

☒ Justifikazio-kontua:

- ☒ Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Entitateak aurkeztutako eta eskaera egingen den unean udal-langileek onartutako aurrekontuaren % 100 justifikatuko da, hura hartu baita diruz lagundu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko oinarritzat. Hori horrela, diruz lagundutako proiektuaren ondorioz egindako gastu guztiak justifikatuko dira, ez bakarrik emandako dirulaguntzaren zenbatekora iritsi artekoak. Horren barruan sartuko da, baita ere, dirulaguntzaren bidez finantzatu ez den aurrekontuaren zatia (% 10), jatorria adierazita (baliabide propioak, dirulaguntzak, etab.).

Justifikazioa modu telematikoan aurkeztu beharko da, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan (www.pamplona.es/eu) gaitutako izapidearen bitartez: *Pertsona juridikoendako dirulaguntzen justifikazio elektronikoa*; edo eskabide orokorraren bidez, beharrezkoak diren agiri guztiak atxikita.

Justifikazio-kontu erraztua agiri hauek osatuko dute:

- Proiektuaren memoria orokorra, VII. Eranskinarekin bat.

- Jardueren ebaluazio-fitxa, VIII. Eranskinarekin bat. Eskaera egin zenean aurkeztu ziren jarduerak baloratzeko behar diren datu guztiak jasoko dira fitxa horretan.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

- Proiektuaren balantze ekonomikoa, IX. Eranskinarekin bat, proiektuko diru-sarrera eta gastu guztiak jasoko dituen. Agiri horretan lortutako diru-sarrera guztiak banakatuko dira, jatorria eta egindako gastu guztiak adierazita. Bertan sartu beharko dira beste instituzio publiko batzuetatik jasotako eta aurkeztutako proiektuaren gastuak ordaindu dituzten dirulaguntzak edo haien zatiak, deialdi honetatik jasotako zenbatekoa eta aplikatutako funts propioak (% 10), baita gastuak ere, diruz lagungarriak diren kontzeptuen arabera bilduta.

- Fakturen zerrenda, X. Eranskinarekin bat: agiri honetan benetan egindako gastuak egiaztatzen dituzten fakturak sartuko dira, eta bat etorri beharko dute diruz lagundutako zenbatekoa kalkulatzeko oinarritzat hartu den onartutako aurrekontuaren % 100arekin. Behar bezala zenbakituta aurkeztu beharko dira, eta eranskinean agertzen diren datu guztiak beteta. Fakturak dirulaguntza jasotzen duen entitatearen izenean egon behar dute, eta behar bezala jaulkita, deialdi honen L.2 apartatuan ezarritako daten barruan, bestela ezin izanen dira onetsi.

- Egindako gastuen ziurtagiriak eta ordainagiriak. Gastuen kasuan: fakturak edo ordezeko dokumentuak, indarrean dagoen araudiaren arabera. Ez dira inongo kasutan onartuko ordainagiri hutsak, kuxako tiketak, emate-agiriak, dohainak, emate-oharrak, autofakturak, merkataritzako trafiko juridikoan balio frogagarriak eta baliozkotasunik ez duten agiriak eta egindako gastuaren gainean administrazio-eraginkortasunik ez dutenak.

Hartzekodunei egindako ordainketen kasuan, ordaindu izana banku-zordunketa bidez egiaztatu behar da, behar bezala sinatutako "hartu-agiri" baten bidez edo, bestela, aurkeztutako fakturak ordaindu egin direla ziurtatzen duen beste agiri bat aurkeztuz.

Halakorik balitz, aplikatu gabeko geldikinak eta horiei dagozkien berandutze-interesak itzuli izanaren ordainketa-agiria.

- Telematikoki aurkeztutako agirien egiazkotasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, XI. Eranskinarekin bat.

Eranskin guztiak PDF formatuan entregatu beharko dira Iruñeko Udaleko Egoitza Elektronikoa, beste formaturen batean diseinatuta daudenak izan ezik.

Kudeaketako unitateak, entitate onuradunak gastuen justifikazioan agertu dituen gastuak aztertu ondoren, justifikazioa onartzeko beharrezkotzat jotzen dituen agiri guztiak aurrez aurreko tramitearen bidez aurkezteko eskatzen ahalko du.

- Baldin eta, organo kudeatzaileak jatorrizko zer agiri hautatu eta horiek erakutsita, desadostasun bat badago, eta desadostasunak badirau hura zuzentzeko errekerimendua egin eta gero, gastua eta gastuaren ordainketa justifikatzeko jatorrizko agiri guztiak eskatuko dira, eta, behar izatera, galdatzen ahalko da dirulaguntza itzultzeko, bidezkoa den zenbatekoan, kopuru horri gehituko zaizkiolarik dagozkion interesak, eta, behar izatera, lege ezar litezkeen zehapenak ere.

Dagokion justifikazioa aztertu ondoren, dirulaguntza kudeatzen duen unitate tekniko kudeatzaileak balorazio-txosten bat egingen du. Bertan espresuki adierazita geldituko da guztiz bete dela dirulaguntzaren xedea, edo, bestela, zein diren justifikazioa onestea eragozten duten akatsak edo inguruabarrak.

☐ Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta.

Bestelako edukia: ☐ BAI ☐ EZ

☐ Justifikazio-kontu erraztua.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

☐ Gastuaren egiaztapena moduluka (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

☐ Kontabilitateko egoera-orriak aurkeztea (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 38. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitateko egoera-orriak ofizialak direla eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

☐ Beste sistema bat:

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga: Diruz lagundutako proiektuen justifikazioak aurkezteko epemuga 2027ko urtarrilaren 31 da.

Q. DIRUA ITZULARAZTEKO ARRAZOIAK:

Zilegi izanen da hala jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan ageri diren itzularazteko arrazoiak bategi ukitzen badu onuraduna, eta apartatu honetan aurreikusitako gainerako kasuetan.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: ☒ BAI ☐ EZ

- Edozein zio dela medio gastuak egiten ez badira, edo horietan funtsezko aldaketak egiten badira, horretarako baimenik gabe.

- P.2. apartatuan adierazitako epearen barruan ez bada azken justifikazioa aurkezten.

- Onuradunek lortutako betetze-maila nahiko hurbil badago erabateko betetze-mailatik, eta haiek ez bairik gabe erakusten badute beren konpromisoak betetzen ahalegindu direla, itzuli beharreko kopurua proportzionaltasun-printzipioa aplikatuta xedatuko da.

R. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko hartzen ahal diren administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organismoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.



S. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

1. Dirulaguntza emateko aintzat hartu diren baldintzak aldatzen badira, eta, edozein kasutan, deialdi honetan baimendutako kasuetatik at beste diru-iturri batzuk eskuratzen badira, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzen ahalko da eta, hala badagokio, dirua itzuliko da.
2. Baldin eta benetako gastuak eskaera egitean aurrekontuan sartu eta dirulaguntzaren zenbatekoa hasiera batean zedarritzeko baliatutakoak baino txikiagoak badira, aintzat hartuko da inguruabar hori, eta proportzioan murriztuko da dirulaguntzaren zenbatekoa, eta kasu horretan aldea itzuli egingen da.
3. Behin deialdia ebatzita, emandako dirulaguntzari uko egin eta hura itzultzen bada, emandako diru-kopuru hori dagokion aurrekontu-partidan jasanaraziko da, eta ez da aldatuko dirulaguntzaren gainerako entitate onuradunei emandakoa. Emandako dirulaguntzari uko egin nahi izanez gero, berariaz jakinarazi beharko da, posta elektronikoz edo eskabide orokorreaz.
4. Dirulaguntza jasotzen duten entitateek udal-teknikariak gonbidatzen ahal dituzte egiten dituzten jardueraren bat ikustera, elkar ezagutzea errazte aldera eta gertuagotik ezagutzeko entitateek Iruñeko auzoetan egiten duten lana.
5. Udal-teknikariak dirulaguntzaren onuradun diren elkarteei proiektuen hartzaileendako interesgarriak izaten ahal diren lankidetzen edo ekintzen berri emanen diete.
6. Bilerara deituko da deialdiaren oinarriak azaltzeko eta behin deialdia NAOn argitaratzen denean eskabidea bideratzeko behar diren agirien berri emateko; eta beste bat justifikazio-epea amaitu aurretik, prozesua eta dokumentazioa aurkezteko, zalantzak argitzeko eta balorazioak jasotzeko.
7. Deialdi honetara aurkezteko argibideak, laguntza, orientazioa edo aholkularitza behar dituzten entitateek Gaztediaren Etxeko Aholkularitza Zerbitzura jotzen ahal dute aurrez aurre edo posta elektronikoz bidez (Zangoza kalea, 30 - asociacionismo@casajuventud.com), edo udal-teknikariengana, infanto_juvenil@pamplona.es helbide elektronikoaren bidez edo 948420532 eta 948420510 telefonoen bidez.

T. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

☒ ERANSKINAK BETETZEKO GIDA

☒ ESKAERARAKO BEHAR DIREN ERANSKINAK:

I. eranskina: Eskabidea eta proiektuaren datu orokorrak.

II. Eranskina: Jarduera-fitxa.

III. eranskina: Aurrekontua.

IV. Eranskina: Erantzunkizunpeko adierazpena, galdatu beharreko segurtasun neurriei buruzkoa.

V. Eranskina: Transferentzia bidez ordaintzeko eskabidea (entitatea lehenengo aldiz aurkeztu bada deialdi honetara edo kontu-zenbakia aldatu badu).

VI. eranskina: Erantzunkizunpeko adierazpena, dagozkion jasangarritasun-planak egitekoa.

☒ JUSTIFIKAZIORAKO BEHAR DIREN ERANSKINAK:



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

- VII. Eranskina: Proiektuaren memoria orokorra.
VIII. ERANSKINA. Jardueraren ebaluazio-fitxa.
IX. Eranskina: Balantze ekonomikoa.
X. Eranskina: Fakturen zerrenda.
XI. eranskina: Erantzukizunpeko adierazpena: dirulaguntzen justifikazio telematikoa.

☐ ERANSKIN OSAGARRIAK.

OHAR GARRANTZITSUA: *Agiri hau erabat ongi ikusteko, gomendagarria da PDF formatuan deskargatu eta irakurtzea.*